



**Hiztegitxo**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>adeitsu</b> 'begirunezkoa, errespetuzkoa'	«Galdetzen zioten guztia erantzuten eta <b>adeitsua</b> izaten ahalegintzen zen.»	(93)
<b>ahapeka</b> 'isilean, xuxurlatuz'	«Herrian inor gutxi zebilen kalean eta etxe atarietan taldetxoak ikusten ziren, <b>ahapeka</b> hizketan eta itxura serioarekin.»	(11)
<b>aholku</b> 'kontseilua'	«...talde desberdinei agindu eta <b>aholkuak</b> ematen...»	(10)
<b>aldarte</b> 'umorea, jarrera, gogaldia'	«Oro har, horretarako inolako arrazoirik ez zegoela, goibeldu egin zitzaion <b>aldarte</b> a.»	(66)
<b>apal</b> 'isilago, baxuago'	«... <b>apalago</b> hitz egiten zuen, eta begirada saihesten zidanez...»	(33)
<b>apologia</b> 'zerbait goretzi, goraipatu'	«Bai, bai... ulertzen diat hori, ni ere ez nauk heroinaren <b>apologia</b> egiten hasiko.»	(86)
<b>arrasto</b> 'lorratza, aztarna'	«...baina bertan ez zegoen neskatoaren <b>arrastorik</b> ...»	(9)
<b>artega</b> 'urduri, kezkatu'	« <b>Artega</b> egoten zen, burua nekatuz, gertatutakoak berrituz»	(75)
<b>asaldatua</b> 'aztoratua, aztoratua, kezkatuta'	«Beldurtuta eta <b>asaldatua</b> ere bazegoen.»	(95)
<b>aseptiko</b> 'desinfektatua, garbia	«Gela <b>aseptiko</b> batean sartu, eta makinako kafea aurrean jarri zioten arte.»	(76)
<b>astegun</b> 'laneguna'	«Eguna argitu zuenean boluntario kopurua igo egin zen, nahiz eta <b>asteguna</b> izan.»	(10)
<b>ateraldi</b> 'burutapena, okurrentzia'	«Zergatik ekarri duzu lana etxera? Ez al duzu nahiko lan egiten eskolan?-azkeneko egunetan ez zuen barrerik egiten nire <b>ateraldien</b> aurrean.»	(89)
<b>ateri egon</b> 'atertzen duenean, euria amaitu'	«Baina <b>ateri zegoenean</b> ere bertan egiten ziren trapitxeoak.»	(79)
<b>atxiki bat eman</b> 'haztatu, oratu keinu bat egin'	«...begietara begira gelditu zitzaidan, <b>atxiki bat eman</b> zion zigarroari.»	(12)
<b>bahitu</b> 'sekuestratu'	« <b>Bahitu</b> , bortxatu eta hil dutela deskubritzen badute...»	(34)
<b>barruntatu</b> 'igarri, nabaritu, sentitu'	«Bederatziaik eta hogezi ziren kanpoko atearen sarrailan giltzaren zarata <b>barruntatu</b> zuenean...»	(64)
<b>bedeinkatu</b> 'otoitzaz ohoratu'	«Nik uste nuen erlijio zalea izango zela, mahaia <b>bedeinkatu</b> ...»	(70)
<b>belar-pattarra</b> 'orujoa, edari alkoholoduna'	«Mahaian eserita geunden, <b>belar-pattarra</b> edaten ari ginela uste dut.»	(39)
<b>bermatu</b> 'finkatu, segurtatu, apoiatu'	«Auto batean <b>bermatu</b> zuen ipurdia, zutik, besoak paparrean gurutzaturik.»	(93)
<b>besagain</b> 'sorbaldia'	«... <b>besagainei</b> eragin nien eta berak barre egin zuen...»	(40)
<b>bezpera</b> 'aurreko eguna'	«Goizeko hamaikak pasatxo ziren eta <b>bezperan</b> euria etenik gabe egin bazuen ere...»	(47)
<b>bihurritu</b> 'trenkatu, estutu'	«— Aurrez aurre banu, neronek <b>bihurrituko</b> nitek putakume horren lepoa.»	(53)
<b>bolada</b> 'denboraldia, aldia'	«...bazekien nor zen eta azken <b>boladan</b> istorio arraroak kontaktzen ziren hari buruz.»	(31)
<b>borondate</b> 'gogoia desioa'	«Aste batzuk emango zituen bertan, “ <b>borondate</b> a indartu arte”, horrela esan zioten Tuercasen amari behintzat.»	(84)
<b>bortxatu</b> 'derrigortu'	«Bahitu, <b>bortxatu</b> eta hil dutela deskubritzen badute...»	(34)



<b>burumakur</b> 'lur jota, gogo barik, goibel, trist'	«Egun haietan ez zen tabernetan sartzen beharrezkoa ez bazen, eta autotik jaistean azkar eta <b>burumakur</b> ibiltzen zen; serio.»	(13)
<b>deigarri</b> 'bitxia, nabarmentzen dena'	«...atzamar birekin zuzen kokatu zuen bere gorbata <b>deigarria</b> Martini begietara begiratu gabe.»	(85)
<b>dogmatiko</b> 'jarrera kategorikoa, autoritarioa'	«Katolikoak, orain pare bat urte arte, emakumeek arima ote zuten eztabai-datzen aritu dira, baina gu ez gara eurak bezalakoak, ez gara <b>dogmatikoak</b> ...»	(94)
<b>ebanjelioa</b> 'Bibliako lau liburuak'	« <b>Ebanjelioa</b> erakusten omen zuen, edo haiek azaldu eta beraietaz hitz egin.»	(58)
<b>erakutsi</b> 'irakatsi'	«Ebanjelioa <b>erakusten</b> omen zuen, edo haiek azaldu eta beraietaz hitz egin.»	(58)
<b>erdipurdiko</b> 'eskasa, hala-holakoa'	«Martinek izena gogoratzen ez zuen arren, bazekien non bizi zen eta baita <b>erdipurdiko</b> ikaslea zela.»	(19)
<b>ergel</b> 'leloa, tentela'	«Errua nirea duk <b>ergelekin</b> tratatzeagatik.»	(56)
<b>erne</b> 'adi'	«Eskuak patriketatik atera eta <b>erne</b> gelditu zen.»	(31)
<b>erregu</b> 'eskaria, baina mesedeka'	«Ez da aukera bat, eta ez da <b>erregua</b> ere.»	(68)
<b>erreguka</b> 'otoizta, eskaka'	«... <b>erreguka</b> ari zela pentsatu nuen eta ez nintzen gai izan begiradari eusteko.»	(89)
<b>estigma</b> 'marka berezia'	«Musika jartzen zuen autoan eta garai zaharrak oroitzen zituen. Aldizkarien <b>estigma</b> baino lehenagoko garaiak.»	(91)
<b>estimu</b> 'balioespena, aprezioa'	« <b>Estimu</b> handia omen zion bere bizitza pribatuari.»	(25)
<b>estrata</b> 'gurpidea, bidexka'	«Bertara joateko errepidea utzi eta lurrezko <b>estrata</b> bat hartu beharra zegoen.»	(9)
<b>ezohiko</b> 'apartekoa, berezia'	«Jasonek gustoko zuen jatetxe exotikoetara joatea, elkarrekin edozer gauza <b>ezohiko</b> egitea gustoko zuen, egia esan.»	(90)
<b>gerontokratiko</b> 'adinekoena'	«»	(34)
<b>haitz</b> 'arroka	«...hondartza eta itsasertzeko <b>haitzak</b> erabiltzen zituzten larrutan egiteko.»	(29)
<b>harrituta</b> 'mira eginda, txundituta'	«Martin <b>harrituta</b> zegoen: azkeneko urte bietan ez zuen alabaren desagertzea...»	(54)
<b>harrobi</b> 'herria ateratzeko lekua /haztegia	«—Nik txantxa bat egin nion... ez dakit... <b>harrobia</b> zaintzen ari ote zen edo horrelako zerbait galdetu nion irribarretsu baina berak ez zuen barrerik egin.»	(108)
<b>haugu</b> 'zaitugu'	«Legez kontrako zerbait berriro egiten baduk, beste edozein gaizkile bezala tratatuko <b>haugu</b> .»	(87)
<b>haxix</b> 'kalamutiko droga psikotropikoa'	«Baaaiiii. <b>Haxixa</b> erretzen dugu, eta zer?»	(24)
<b>heuk</b> 'zeuk (hika)'	«Dena dela, <b>heuk</b> aipatutakoa aukera bat duk, ez Arizak egitea, noski, norbaitek mutila hil nahi izatea baino.»	(86)
<b>hipotesi</b> 'teoria'	« <b>Hipotesi</b> sinesgarriena zen Simon talde bateko partaidea izatea eta neskatoaren desagertzea antolatua egotea...»	(109)
<b>hutsal</b> 'balio gutxikoa, huskeria'	«Jasonek ahalegin <b>hutsalekin</b> ilusioa galdu duela uste dut...»	(113)
<b>igarri</b> 'antzman, nabaritu'	«...eta begiradan <b>igarri</b> nion nik baieztatzea nahi zuela.»	(80)
<b>ika-mika</b> 'eztabaida'	«Haien arteko <b>ika-mikak</b> eta harremanak, haien patuak elkarrekin lotzen zituzten hariak.»	(109)



<b>ikara</b> 'izua, beldurra'	« <b>Ikara</b> zegoen mutikoaren begietan, eta emazteak, aurpegiko zauriari begira...»	(51)
<b>ikusmin</b> 'ikusteko gogoa'	«Gehienek Simonen heriotza Aroa Lopezen desagertzearekin lotu zuten eta honek <b>ikusmin</b> handia sortu zuen, baina, egia esan, ez zegoen hain argi.»	(107)
<b>intzirika</b> 'suspirioka bezala, antsika'	«Zakur koitadua <b>intzirika</b> urrutiratu zen...»	(30)
<b>irribarretsu</b> 'alai, irri eginez, arrai'	« <b>Irribarretsu</b> seinalatzen nion taldetxoari begiratu zion...»	(11)
<b>itogarri</b> 'jasanezina'	«Gero eta <b>itogarriagoa</b> egiten zitzaidan, nahiz eta gurasoek...»	(6)
<b>itsasertz</b> 'itsasbazterra, itsasegia, kostaldea'	«... <b>itsasertzeko</b> baso eta hondartzak miatzeko.»	(10)
<b>jaioterri</b> 'sorlekua, sorterrria'	«...institutuko erlijio irakasleak bere <b>jaioterrian</b> etxebizitza merke zegoela alokairuan...»	(6)
<b>jipoitu</b> 'astindu, kolpatu, egurra eman'	«— Tuercas. Nork <b>jipoitu</b> du?»	(43)
<b>kala</b> 'hondartza txikia / arrantza gunea'	«— Aroa bostak baino lehen atera zen etxetik <b>kalara</b> bidean.»	(45)
<b>katatoniko</b> 'deliratzan bezala, haluzinazioekin'	«Izaro egoera <b>katatoniko</b> batean zegoen...»	(67)
<b>kirten</b> 'tontolapikoa, papaua, leloa'	«...eta bere lagun <b>kirtenek</b> ez zuten sekula elkarrizketa luzerik izaten neskekin.»	(30)
<b>koherente</b> 'logikaren araberakoa, arrazoizkoa'	«Horrelakoetan, sinesgarriena edo <b>koherenteena</b> iruditzen zitzaidana jarri dut.»	(5)
<b>koitadu</b> 'gizajoa, gaixoa'	«Zakur <b>koitadua</b> intzirika urrutiratu zen...»	(30)
<b>konbentzitu</b> 'limurtu'	«Kala-txikiraino autoan buelta bat emateko <b>konbentzitu</b> zuen Tomas...»	(8)
<b>kronika</b> 'kontaketa, narrazio ordenatua'	«Hurrengo orriotan kontatuko ditudanek gure herriko <b>kronika</b> moduko bat izan nahi dute, garai zehatz bateko nire kronika subjektiboa.»	(5)
<b>lainotu</b> 'hodeitsua, goibela'	«Arratsaldeko laurak eta hogeian heldu zen etxera Aroa udazkeneko egun <b>lainotu</b> hartan.»	(8)
<b>langar</b> 'lanbroa, zirimiria'	«Euri <b>langarra</b> ari zuen eta aspaldi tailer bat izandakoan sartu ziren babesteko.»	(79)
<b>larrutan egin</b> 'txortan egin, amodioa egin'	«...hondartza eta itsasertzeko haitzak erabiltzen zituzten <b>larrutan egiteko</b> .»	(29)
<b>laxatu</b> 'tinkotasuna kendu, nasaitu'	«Gorbataren korapiloa <b>laxatu</b> , zapatak lokarria ukitu gabe erantzi...»	(83)
<b>leherturik egon</b> 'leher eginda, sats eginda, pot...'	« <b>Leherturik</b> zegoela esan zion senarrari bekokian musu bat eman ostean.»	(8)
<b>lekukotza</b> 'tentigantza, deklarazioa'	«Ez zuen ezer esan eta galderen bitartez egin zuen bere <b>lekukotza</b> Tuercasek.»	(77)
<b>listu</b> 'ttua, adurra'	«Zakurra berehala joan eta <b>listuz</b> bete zizkion eskuak eta nikia.»	(39)
<b>maindire</b> 'izara, mihisea'	«...batzuetan <b>maindirea</b> hanken gainean jarri eta...»	(58)
<b>mairu</b> 'musulmana'	«...bazen taberna ingurutik ibiltzen zen <b>mairu</b> bat...»	(78)
<b>makuto</b> 'motxila'	«Egun hartan leporik gabeko jertse berdea zeraman kamiseta baten gainean eta sorbaldatik zintzilik <b>makuto</b> bat.»	(105)



<b>marmarka</b> 'ahapeka kritikatu'	«...emakume bi <b>marmarka</b> harrapatu nituen niri begira.»	(11)
<b>miatu</b> 'ikertu, arakatu'	«...itsasertzeko baso eta hondartzak <b>miatzeko</b> .»	(10)
<b>misogino</b>	«»	(34)
<b>muino</b> 'mendixka, tontor zapal erakoa'	«...itsasotik bost bat kilometrora zegoen, muino baten, goian zegoen elizaren inguruan...»	(6)
<b>musker</b> 'lagartoa / berdea'	«Halako batean, Aneren koinatuak, <b>musker</b> itxurako gizon lasaiak...»	(60)
<b>nasai</b> 'zabala, irekia'	«Ilea motots batean eramaten zuen eta kolore ilunetako arropak janzten zituen, jertse <b>nasaiak</b> zituen gustuko.»	(93)
<b>nasai</b> 'zabala'	«...hori eta patrika askoko praka <b>nasaiak</b> ...»	(78)
<b>negar zotin</b> 'zinkuria, intziritxoa, maina'	«...negar <b>zotin</b> bat egin zuen Aurorak, eta Tuercasek muturra okertu zuen.»	(65)
<b>neronek</b> 'neuk'	«— Aurrez aurre banu, <b>neronek</b> bihurrituko nikek putakume horren lepoa.»	(53)
<b>nihilista</b> 'eszeptikoa'	« <b>Nihilistagoa</b> bihurtu zutela uste dut, ez ni beste, baina bai lehen baino gehiago.»	(110)
<b>ofizial</b> 'baimendua, legezkoa'	«Azkenean, Martinekin hitz egitea erabaki zen, baina ez modu <b>ofizialean</b> .»	(84)
<b>omen</b> 'ei, esaten dutenez'	«Ebanjelioa erakusten <b>omen</b> zuen, edo haiek azaldu eta beraietaz hitz egin.»	(58)
<b>orroka</b> 'oihuka, zarataka'	«Gizonak zerbeza botila zuen eskuetan eta <b>orroka</b> hurbildu zitzaion.»	(51)
<b>otzara</b> 'saskia'	«Hutsik zegoela pentsatu eta bertan gordetzen zuen <b>otzara</b> baten bila sartu zen logelara.»	(81)
<b>papar</b> 'bular aldea'	«Auto batean bermatu zuen ipurdia, zutik, besoak <b>paparrean</b> gurutzaturik.»	(93)
<b>patrika</b> 'poltsikoa, sakela'	«Eskuak <b>patriketatik</b> atera eta erne gelditu zen.»	(31)
<b>porlan</b> 'zementua'	«Hondartza ez zen urruti eta etxearen atzealdean <b>porlanezko</b> zorua zuen...»	(7)
<b>sarrail</b> 'zerrapoa'	«Bederatziak eta hogeitaziren kanpoko atearen <b>sarrailan</b> giltzaren zarata barruntatu zuenean...»	(64)
<b>sataniko</b> 'deabruzkoa'	«...baina ezin zuen ahaztu berak, Simonek, egin zuela hondartzako marraskia, polizia talde satanikoak ikertzera eraman zuena.»	(105)
<b>subjektibo</b> 'pertsonala, ez objektiboa'	«Hurrengo orriotan kontatuko ditudanek gure herriko <b>kronika</b> moduko bat izan nahi dute, garai zehatz bateko nire kronika subjektiboa.»	(5)
<b>topiko</b> 'estereotipoa, ideia egina'	«Hiruzpalau galdera topiko eta horrenbeste erantzun <b>topikoren</b> ostean ailegatu ginen harira.»	(62)
<b>trakets</b> 'dorpea, baldarra'	«Ez zara batere ona, <b>traketsa</b> zara eta ez duzu inolako pazientziarik...»	(40)
<b>txirri</b> 'porroa'	«Eta <b>txirriak</b> erretzen.»	(24)
<b>txutxu-mutxu</b> 'esamesa'	«West-enak herria <b>txutxu-mutxuz</b> eta esamesez bete zuen eta Arizaren andreak bildu egiten zituen gero senarrari kontatzeko.»	(90)
<b>ubeldua</b> 'moretua, odolbildua'	«Tuercasek aurpegiko <b>ubeldua</b> ukitu zuen atzamarrarekin.»	(65)



<b>umiliazio</b> 'laidoa, mespretxua'	«Eta eguneroko <b>umiliazioak</b> agoantatzen jarraitu zuen, etxean ezer kontatu gabe.»	(50)
<b>urruna</b> 'usoen edo katuen erako soinua'	« <b>Urruna</b> txikiak egin zizkion Spray-ri aurretik pasatu zitzaionean, baina Spray-k urruna luze, sakon eta mehatxukorrekin erantzun zion...»	(94)
<b>xehetasun</b> 'zehaztasuna, detailea'	«...bazekien Izarok <b>xehetasunak</b> ere ematen zizkiela bere lagun minei...»	(30)
<b>zalaparta</b> 'iskanbila, istilua'	«Bederatziak pasata zeuden atean <b>zalaparta</b> sentitu zuenenean.»	(51)
<b>zimeldu</b> 'ihartua, freskotasuna galduta'	«Udako soineko arin batekin jantzita ikusi zuen eta lore-sorta <b>zimeldua</b> zuen eskuan»	(17)
<b>zinegotzi</b> 'kontzejala, udal ordezkaria'	«...normalean aginduak Arieta <b>zinegotziak</b> ematen zizkien.»	(41)
<b>zoli</b> 'bizia'	«... <b>zoliagoak</b> zuraren gainetik, motelagoak azulejoen gainetik.»	(71)
<b>zurbildu</b> 'zuri geratu'	«Tuercas <b>zurbildu</b> egin zen, txorabio antzekoa sentitu zuen...»	(65)
<b>zurrungaka</b> 'lo, zarata eginez'	«...ez duzu ezer agoantatzen, hamar minutu eta lo zaude, <b>zurrungaka</b> , tripaz gora.»	(41)